

## ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN KONTRATAZIO BATZORDEAREN AKTA

Bilbon, 2019ko azaroaren 20an

Idazkariak aurretiaz egindako deialdiari jarraiki, 2019ko azaroaren 14ko datarekin, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN (EEE) Kontratazio Batzordea bildu da, eta bertan honako kide hauek izan dira:

### **BATZORDEKIDEAK**

Enrique Monasterio Beñaran jauna, EEEko Garapen eta Berrikuntzako zuzendaria eta Kontratazio Batzordearen Presidentea.

Javier Marques Gonzalez jauna, EEEko zuzendari teknikoa.

Rosa Madina Romero andrea, EEEko Ekonomia-Finantzako zuzendaria.

Álvaro Colón Barriocanal jauna, EEEko Idazkari Nagusia.

### **IDAZKARIA EZ BATZORDEKIDEA**

Iker Alaña Zorrilla jauna, EEEko Kontratazio Ataleko arduraduna.

Gai-zerrenda jorratzeko, honako eduki hauen arabera:

1. *Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.*
  - *COM/19/003. Sustainable Innovation Forum 2019 (Madrid) ekitaldia babesletza kontratua*
2. *Beste gai batzuk.*
3. *Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.*

1. **Kontratazio prozeduraren hasieraren memoria justifikagarria eta horri lotutako agiriak.**

Batzordekideek, kontratuaren arduradunak aurkeztutako memoria justifikagarria eta honi dagokion Klausula Administratibo Berezien Agiriak (KABA) eta Zehaztapen Tekniko Partikularrenak aztertu dituzte, honako kontratazio espediente hauei lotuta:

- *COM/19/003. Sustainable Innovation Forum 2019 (Madrid) ekitaldia babesletza kontratua*

Batzordekideek egiaztatzen dute bi dokumentu horiek, kontratazio espedienterako beharrezkoak direnak, SPKLen aurreikusten diren baldintzak betez egin direla, eta kontratazio organoari bidaliko zaizkio, SPKLen 117. artikulua aplikazioari jarraituz, egokituz jotzen baldin badu, ebazpen arrazoitua eman dezan, kontratazio espedienteak onartuz eta lizitazio prozeduraren hasierari ekinez.


2. **Beste gai batzuk.**

Ez da beste gairik izan.


**3. Bileraren akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Bileraren akta idazteari ekin zaio eta irakurri ondoren, aho batez izan da onartua.

Bilera amaitu eta gero, akta hau sinatzeko eman zaie, eta bertan EEE ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEko Kontratazio Batzordeko presidentek eta idazkariak izenpetu dute.



Enrique Monasterio Beñaran jn.  
Kontratazio Batzordeko presidentea



Iker Alaña Zorrilla jn.  
Kontratazio Batzordeko idazkaria